

## 3. MAILA

### Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

1. ZATIA. Gaia azaldu eta iritzia eman (5 min)

(5 minutu  
azterketari  
bakoitzak)

**Guztira 10 bat  
minutu**

**Prestatzeko denbora:**

**20 minutu** inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

**Prestatu behar duzun gaia:**

## B

**Gaur egun ez omen da irakurtzen....**



**“Ez omen da irakurtzen;** belaunaldi berriek letrak zokoratu omen dituzte eta teknologia berriak lehenetsi; irakurketak ez omen du esperantzarik. Atzo ere aspertzera inoiz baino gehiago irakurtzen da. Eskolan, kalean nahiz sarean, letraz beteta dauzkagu kale-kantoi guztiak, letra barreiatua dago bizitzaren eremu guztietan; generoak eta situazioak ugaritu zaizkio letrari; letrarik gabeko zirrikitu gutxi ikusiko duzu bazterretan. Sarbide gero eta oparoagoak ditugu beste hizkuntzetako letretara iristeko ere.

Orduan, zer? Gezurretan ari gara?

Neurri batean, bakarrik, **irakurketa aipatzen dugunean, liburuez ari gara: irakurketaren formatu bakarra liburua balitz bezala hitz egiten dugu, eta hortik sortzen da nahasmena.**”

**Anjel Lertxundi (idazlea)**



## 1 B

**Gaia prestatzeko:**

- Zer dio Anjel Lertxundik?
- Zein ideia azpimarratuko zenuke? Zergatik?

**Eman zure iritzia:**

- Zure ustez gaur egun lehen baino gehiago irakurtzen da? Gutxiago?
- Zein dira irakurtzeko ohiturak gaur egun?

**(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)**

**EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN**

## 3. MAILA

### Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

1. ZATIA. Gaia azaldu eta iritzia eman (5 min)

(5 minutu  
azterketari  
bakoitzak)

**Guztira 10 bat  
minutu**

**Prestatzeko denbora:**

**20 minutu** inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

**Prestatu behar duzun gaia:**

## A

### BAZTERTU DEZAKETE LIBURU ELEKTRONIKOEK LIBURU TRADIZIONALA?

**Pruden Gartzia**

*(Azkue Bibliotekako zuzendaria)*

Gaur eta hemen esan dezakegu epe erdira papera ez dela desagertuko, eta hala balitz, haren desagertpenak zerikusi handiagoa izango du munduko oihanak galtzearekin ordenagailuekin baino.



**Kirmen Uribe**

*(Idazlea)*

Ez dut uste liburua desagertuko denik, eta hala balitz ere, bestelako irakurketa modu atseginago bat lortuko delako izango da. Edukia da muntazkoa eta ez zer modutan helden zaion irakurleari. Esan nahi dut liburuetan agertzen dena beste era batera agertzeak ez duela azkenean garrantzi handiegirik. Nire aburuz, benetako arazoa liburuan baino liburuaren beraren merkaturatze-moduetan datza.



## 2 A

**Gaia prestatzeko:**

- Zer diote elkarrizketatuek?
- Noren ideia azpimarratuko zenuke? Zergatik?

**Eman zure iritzia:**

- Zer diozu liburu elektronikoaz? Zein dira abantailak eta desabantailak?

**(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)**

**EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN**

Azterketa deialdia: **2008ko ekaina**

## 3. MAILA

### Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

1. ZATIA. Gaia azaldu eta iritzia eman (5 min)

(5 minutu  
azterketari  
bakoitzak)

**Guztira 10 bat  
minutu**

**Prestatzeko denbora:**

**20 minutu** inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

**Prestatu behar duzun gaia:**

## B

### NEURRIAK HARTU BEHAR DIRA KALE-ZURRUTAREN AURREAN?

#### Angel T. Gago

*(Bizkaia Ostalaritzako Elkarteko idazkari nagusia)*

Ezer baino lehenago, kontuan izan behar da kaleak ez daudela insonorizatuak, beraz, ordu txikietan jendeak kale-plazak hartzea debekatua egon beharko litzateke. 1982an Ostalaritzako elkartea horrelakoak bazirela salatzen hasi zen, baina ez da ezer egin. Eragotzita egon beharko lukete baita neurri txikiko litro-edateak ere, horrelakoak astebururo egiten baitira gure kaleetan, eta inork ez du ezer egiten.

#### Bakarne Zuazu

*(Gazteen Euskal Behatokiaren arduraduna)*

Alkoholak joera arriskutsuak eragiten baditu ere, joera eta ohitura horiek lotuagoak daude gazteen aisialdiarekin, kale-zurrutarekin berarekin baino. Besteak beste, istripuak, droga kontsumo anitza, biolentzia, kalitate gutxiko alkoholaren salmenta (garrafoia), eta abar.

Ez dezagun, beraz, estigmatizatu eta kriminalizatu gaztea alkoholarekin duen harremanagatik, gizarte osoak duena baita.

#### Javier Rodriguez

*(Bihotzean Zazpi Kaleetako auzo elkarteko kidea)*

Kalean kultura egin daiteke, kirola egin daiteke eta, gainera, ongi pasa dezakegu; baina horien guztien gainetik, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean aitortutako eskubideak daude.

Autoritarismoa ez da irtenbidea, baina "debekatua debekatzea" ere ez. Horrexegatik, beharrezkoa da autoritate demokratikoaren printzipioa berreskuratzea.



## 2 B

**Gaia prestatzeko:**

- Zer diote elkarrizketatuek?
- Noren ideia azpimarratuko zenuke? Zergatik?

**Eman zure iritzia:**

- Zer diozu gaiaz?
- Zer proposatuko zenuke egoera hobetzeko?

**(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)**

**EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN**

## 3. MAILA

### Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

1. ZATIA. Gaia azaldu eta iritzia eman (5 min)

(5 minutu  
azterketari  
bakoitzak)

**Guztira 10 bat  
minutu**

**Prestatzeko denbora:**

**20 minutu** inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

**Prestatu behar duzun gaia:**

## A

### BAZTERTU DEZAKETE LIBURU ELEKTRONIKOEK LIBURU TRADIZIONALA?

**Javier Gogeaskoetxea**

*(Euskadiko Editoreen Lehendakaria)*

Oro har, uste dut paperezko formatoan argitaraturiko liburuak ez direla sekula galduko: oso zaila ikusten dut hori. Hain zuzen ere, eleberri, narratiba, saiakera, ikas-liburu eta gisako beste genero askoren kasuan, liburu elektronikoak ez du paperezko inprimaketaren tokia hartuko. Bestela gertatzen da, ordea, erreferentzia-liburuen kasuan (hiztegiak, entziklopediak, estatistika-liburuak...), horietan guztietan euskarri elektronikoa papera baztertzen hasia baita.



**Gorka Arrese**

*(Susa argitalatxearen arduraduna)*

Literatura paperean irakurtzea erosoagoa da oraindik (aldean ia noranahi ere eraman baitezakegu, ur azpira izan ezik); oso aproposak dira paperaren neurriak, esate baterako, eleberrientzat; ukimenezko (eta usaimenezko) plazerra eskaintzen digu paperak; begiak ez dira hainbeste nekaratzen; eta objektuak berak badu xarma berezi bat (eta bereziago bihurtuko dute idazleek eta editoreek, euskarri elektronikoak nagusitzen doan heinean).



## 3 A

**Gaia prestatzeko:**

- Zer diote elkarrizketatuek?
- Noren ideia azpimarratuko zenuke? Zergatik?

**Eman zure iritzia:**

- Zer diozu liburu elektronikoaz? Zein dira abantailak eta desabantailak?
- Zer irakurriko da etorkizunean?

**(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)**

**EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN**

Azterketa deialdia: **2008ko ekaina**

### 2. ZATIA BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

### 3. MAILA



### Gaia: ETXEA ALOKATZEA AUKERARIK ONENA!



#### Elkarrizketa bideratzeko:

- **Ezingo zenukeena erosi** aloka dezakezu.
- Europako **gazte asko** horrela bizi da.
- Alokairu merkeak behar dira
- **Gazteentzat aukerarik onena**
- **Konpondu beharrik ez**, jabeari esan eta kito.  
**Lantokiaren ondoan** bizi zaitetzke...

## 2. ZATIA BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

### 3. MAILA



### Gaia: GAZTE LOKALAK BAI!



#### Elkarrizketa bideratzeko:

- Ondo dago bilgune bat edukitzea.
- Hor behintzat **kontrolatuta daude**, bestela botelloia-eta egingo lukete edozein tokitan
- **Ez dago aukera hobetik** denbora librea pasatzeko.
- Gazte-lokaletan gauza asko egin daitezke **denbora aprobeztatzeko**.

# HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

B

## 2. ZATIA BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

### 3. MAILA

Gaia: GAZTEEN LOKALAK EZ!

HADE  
25



### Elkarrizketa bideratzeko:

- Hor barruan **inork ez daki zer egiten duten.**
- **Ghettoak dira.** Ez daukate harremanik beste inorekin.
- Uda eta negu, **lau ormaren artean** sartuta.
- **Gazteek kalea** behar dute.
- **Ez dute ezertan parte hartzen.**

2B

# HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

## B

2. ZATIA  
BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

3. MAILA

HADE  
25

Gaia: ETXEA EROSTEA AUKERARIK ONENA!



**Elkarrizketa bideratzeko:**

- Ez da **dirua alferrik botatzen**.
- Zure **ondorengoei** utz diezaiekezu.
- **Nahi duzun bezala janzteko** aukera daukazu.
- Ondo **zaintzeko ilusioa** duzu.
- **Etorkizunari begira** seguru sentiarazten zaitu.

4B